

Mari Karmen Urteaga

“Helburuak, plan zehatzik ez badago, ez dira lortzen”

Eskolak Euskaldundu herri ekimenak martxoan amaitu zuen eskolak euskalduntzearen aldeko kanpaina. Mari Karmen Urteagarekin, ekimeneko eta LABeko kidearekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hizkuntza eredu sistema aldatzeko egindako azken proposamenaz hitz egin dugu.

UNAI BREA

Argazkiak: Maddi Soroa

Hego Euskal Herrian hizkuntza eredu sistema dago indarrean. Zuen eska-riak hori gainditzen duelakoan nago.

Bai, bai. Guk eskatzen duguna siste- ma oso bat da, murgiltze sistema osoa. Eta momentu honetan ikas- leak euskalduntzen dituen bakarra —eta ez ikasle guztiak— D eredu ize- naz ezagun dena da. Horrelako sis- tema izan beharko luke, gutxienez D eredu indartua.

Oraingo sistema agortuta dagoela Eusko Jaurlaritzak ere esaten du.

Jaurlaritzak orain artekoari buruz- ko balorazio positiboa egin du, esa- nez asko aurreratu dela nahiz eta ez nahi adina, ikasle guztiak ez direla- ko euskaldundu. Gure balorazioa ez da positiboa, inondik inora. Sis- tema hau ezarri zenean, adostasun politikoei erantzun zion gehiago, benetan euskara berreskuratzeko planari baino. Eta adostu egin zen, bai, baina legeak esaten du ikasleek bi hizkuntzak menperatu behar dituztela eta ez da lortu, hain zuzen ere oinarriak jarri ziren bezala jarri zirelako. Hasieratik euskalduntzea izan balitz helburua, 25 urteotan aurrerapen handiak egingo zirate- keen.

Hezkuntza Sailak martxoan egindako sistema berrirako proposamenari zer deritzozue?

Alde onak ikusten ditugu hor. Ikasle guztiak menperatu behar dituztela,



“Barkaezina litzateke, malgutasunaren malgutasunez, irakaskuntza euskalduntzea huskerian gelditzea, ausardia faltagatik edota alderdi batzuen interesak lehenestegatik”.

ikasketak bukatzerakoan, bi hizkun- tza ofizialak...

Hori lehen ere esaten zen ordea!

Horixe! Eta ez zen bete, beraz, helbu- ruak, bitartekoak ez badaude, plan zehatzik ez badago, ez dira lortzen. Kontua da helburu potoloak jarri direla, eta zehaztasuna falta dela. Adi- bidez, horrek zer aurrekontu izango duen. Honek guztiak diru asko behar du. Eta zer baliabide jarriko den. Hori dena zehaztu gabe egonik, ezin dugu esan proiektua oso ona denik. Azken batean, beraiek esaten dute garrantzitsua dela markoa adostea.

Lehen ere adostu zen, baina adosta- sun horrek eragiten badu gauza askok aurrera ez egitea, guk ez dugu ontzat emango.

Bestetik, irakaskuntzako zenbait etapa garrantzitsu ez dira sartu pro- posamenean. Adibidez, 0-3 etapa. Oso zaila da, eta batez ere soziolin- guistikoki euskaldunak ez diren eskualdeetan, 0-3 etapan eredu eus- kaldunetan egon ez diren ikasleak euskalduntzea. Guretzat oinarritzkoa da hori. Oso garrantzitsua da baita ere, derrigorrezko hezkuntzaren ondoren zer gertatuko den jakitea: Batxilergoa, Lanbide Heziketa

—momentu honetan erdal eredu en gotorlekua—, unibertsitatea...

Proposamenak ez du zehazten ezta ere zer egingo den irakaskuntza-ko langileekin. Aipatu egiten du asmo handiko didaktika aholkularitza taldea sortuko dela. Beharko da bai, batez ere ahozketasuna, hizkuntza ez formala eta abar bultzatu nahi baditugu. Baina zehaztu beharko da talde hori ikastetxe guztietara iritsiko den, nahikoa materiala prestatuko duen, nahikoa heziketa dituen irakasleak... Hor ere, zehaztasunik ez. Aipatzen dute, baita ere, koordinazioa, elkarlana, erakundearen artean. Baina plan espezifiko, zehatza eta integrala ez bada egiten, hitzetan gelditzen da. Neurri zehatzik jartzen ez bada, lau urte pasa eta berdin jarraituko dugu.

Ez da neurri zehatzik iragarri, orduan?

Ez. Esaten dute gero zehaztuko dutela, garrantzitsuena orain kontsentsua dela, markoa adostea.

Bistan da Hezkuntza Sailaren proposamena kritika askotxo jasotzen ari dela. Beste bat ebaluazio sistemari dagokio.

Ikasleen euskara maila DBH bukatu ondoren eta Lehen Hezkuntza bukatu ondoren neurtzea proposatu dute, urtez urte egin beharrean. Baina lehenengo ebaluazioa ez bada Lehen Hezkuntza amaitu arte egiten oso zaila da neurri zuzentzaileak jartzeko. Tarteko diagnosiak egingo omen dira lehenago, Lehen Hezkuntzako laugarren mailan. Ikasleek ordurako badituzte hamar urte, eta gure ustez, lehenago egin beharko lirakeke diagnosi eta ebaluazio horiek, benetako neurri zuzentzaileak jartzeko. Bestela, berandu izan daiteke.

Irakasleenak ere arazo potoloa ematen du.

Sare publikoan, irakasleen %80 euskaldunduta dago. EAEko datuen

Pozik kanpainak emandakoaz

Eskolak Euskaldundu ekimenak urtariletik martxora egin zuen *Garaia delako, bai eskolak euskalduntzeari* kanpaina. Urteagak gogorarazi digunez, 2006an egindakoaren jarraipena izan da. "Iaz *Bai eskolak euskalduntzeari* leloarekin egin genuen, eta helburua ahalik eta sinadura gehien biltzea zen, benetan euskalduntzen duten eredu alde, eta euskalduntzen ez dutenak baztertze".

Batutako 107.000 izenpeak hainbat erakunderi helarazi zizkieten: Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua, Udalbiltza eta Euskararen Erakunde Publikoari (EEP). Udazkenean hitzordua eskatu zizkieten lauri; baita lortu ere hirutan, ez nahi bezain emaitza onarekin ordea. "Udalbiltzak bat egiten zuen gure asmoekin, baina eskumen arazoak dauzkate. EEPk zioen zaila zutela ezer egitea, Frantziako Gobernu-ko erakundea delako. Nafarroako Gobernuak, berriz, teknikaria bidali zuen bilerara, ez benetako ardura zeukana". Gasteizko Hezkuntza Sailak ezta teknikaria ere: Eusko Jaurilaritza da

Eskolak Euskaldundurekin elkartu ez den erakunde bakarra. "Doala gure kritika", dio Urteagak.

Aurtengo kanpaina eskualdez eskualde burutu dute, arrakastaz LABekoaren esanetan. "Bilera asko egin da 30-35 eskualdetan, eta pozgarria izan da zenbaitetan lortutako erantzuna". Ontzat jotzen dute, halaber, hainbat sektorek parte hartu izana. Gehienbat guraso, irakasle eta ikasleak izan dira partehartzaileak, baina badira Urteagak nabarmendu nahi lituzkeen kolektibo bi: "Batetik, kalte- tuak, eskolan euskaldundu ez direnak eta beren kabuz, denbora eta dirua emanez euskara ikasi dutenak. Bestetik, etorkinak. Etorkizunerako ezinbestekoak dira". Aurtengo kanpainan, 27 herrialdetako etorkinen atxikimendua lortu du Eskolak Euskaldunduk. Alde ilunik ere bada. Besteak beste, "garrantzitsuak iruditzen zaizkigun zenbait eragile kanpainetatik kanpo geratu izana" aipatu du Urteagak, "hala nola STEE-EILAS, ELA edo EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarte)".

arabera, 1.677 irakaslek dauka PL0 hizkuntza eskakizuna —euskaraz ezer ez—, beste 1.358k PL1 —nola edo hala hitz egiteko gai dira—, eta 16.479k PL2. Benetan ikasleak euskaldunduko dituen sistemaren alde ari bagara, asko dago euskalduntzeko. Guk diogu irakasle guztiek izan behar dutela gai bi hizkuntzetan lan egiteko, eta PL2koak dira bakarrak.

Guraso askoren erresistentzia ideologikoa ere hor dago. Jaurilaritzak egin dako proposamenaren aurrean nola jokatu dute zenbaitek?

Jarrera ezkorra izango dute. Gurasoen aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen duten horiek halako jarrera izango dute. Espero dezagun kopuruari dagokionez oso indartsua ez izatea.

Euskalduntzen ez duten eredu aldea jokatzeko dute alderdi politiko batzuek ere.

Hala da, bai.

Hainbeste azpimarratzen den kontsentsu hitzak, horiek ere "pozik" eduki beharra esan nahi al du?

Euskara suspertzearen alde ez dauden pertsonak egongo dira, modu agerigoan edo ezkutuagoan, eta ez dute pisu politiko makala. Denok nahi dugu adostasuna, baina euskararen egoera larria dela eta euskara suspertzeko behar diren neurriak jarri behar dira. Barkaezina litzateke malgutasunaren malgutasunez irakaskuntza euskalduntzea huskerian gelditzea, ausardia faltatik edota alderdi batzuen interesak lehenestegatik. ■

Babeslea: Hondarribiko Euskara Zerbitzua

